

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4389

IRAGARKIA, 2025eko urriaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Gipuzkoako lurralde-ordezkarirena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira Eibar, Soraluze-Placencia de las Armas, Bergara, Elgeta eta Elgoibar udalerrietako (Gipuzkoa) «28,00 MW-ko Basalgo parke eolikoa eta haren ebakuazio-azpiegitura komunak» proiektuaren aurretiazko administrazio-baimenaren eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren eskariak.

115/2002 Dekretuaren 7. artikuluan (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikitik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena) eta 24/2013 Legearen 53.1 artikuluan (24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa) ezarritako ondorioetarako, eta bat etorritik Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin, jendaurrean jartzen dira Basalgo parke eolikoari eta hari lotutako azpiegiturei buruzko proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterlana.

Espedientea: 20-GE-Y-2024-00007.

«28,00 MW-ko Basalgo parke eolikoa eta haren ebakuazio-azpiegitura komunak» proiektua:

- 28,00 MW-ko Basalgo parke eolikoa. Honako parke eolikoek osatua: «PE Cote 26», «PE Galera 26», «PE La Carmelita 3», «PE Lima», «PE Los Pistoleros 4» eta «PE Paloma 5». 6 aerosorgailu ditu, horietatik 5 dira 4,99 MW-ko potentziakoak eta beste bat 3,05 MW-ko potentziakoa; dorreak 112 metroko altuera dauka, eta errotoreak 175 metroko diametroa. Parkea Eibar, Soraluze-Placencia de las Armas, Bergara, Elgeta eta Elgoibar udalerrietan dago (Gipuzkoa).

- Basalgo sekzionamendu-zentroa, 30kV-koa, Soraluze-Placencia de las Armas udalerrian (Gipuzkoa).

- Basalgo sekzionamendu-zentrotik Elgoibarko azpiestaziora 30 kV-ko aireko eta lurpeko linea, 4,318 km-ko luzerakoa, Soraluze-Placencia de Armas eta Elgoibar udalerrietako lursailetatik pasatzen dena (Gipuzkoa). 1. tarte: 0,1434 km-ko luzera duena, lurpetik. 2. tarte: 0,3287 km-ko luzera duena, airetik. 3. tarte: 1,262 km-ko luzera duena, lurpetik. 4. tarte: 1,6448 km-ko luzera duena, airetik. 5. tarte: 1,068 km-ko luzera duena, lurpetik.

- Xedea: energia elektrikoa sortzea lehorreko teknologia eoliko berriztagarriaren bidez.

- Eskatzailea: Arena Power Solar 10 SLU.

- Titularrak eta sustatzaileak:

- «PE Cote 26», Arena Power Solar 9.

- «PE Galera 26», Arena Power Solar 10.

- «PE La Carmelita 3», Savanna Power Solar 21.

- «PE Lima», Enigma Green Power 2.

2025eko urriaren 17a, ostirala

- «PE Los Pistoleros 4», Savanna Power Solar 22.
- «PE Paloma 5», Savanna Power Solar 23.
- Eskariaren xedea: Aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.
- Tartean dauden udal-mugarteak: Eibar, Soraluze-Placencia de las Armas, Bergara, Elgeta eta Elgoibar (Gipuzkoa).
- Banaketa-sarera husteko puntua: «Elgoibar» azpiestazioa, 30 kV-ekoa, i-DE Redes Eléctricas inteligentes SAUrena.
- Parke eolikoaren eta ebakuazio-linearen aurrekontua: 35.711.451,38 euro.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak eman behar dio proiektu honi alde zuzeneko administrazio-baimena. Jendaurrean erakusteko izapidea bete behar du baimena horrek, dena den, ingurumen-inpaktuaren azterketarekin batera, horrela ezartzen baita Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluan.

Hori guztia argitaratzen da, interesdunek eta, oro har, herritarrek 30 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratzen den egunetik aurrera, dokumentazioa azter dezaten Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan (Easo kalea 10, 20006 Donostia) eta Interneteko www.euskadi.eus webgunean (Energia eta meategiak/Energia ataleko proiektuen jendaurreko informazioan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/energia-meategiak/hasiera/>), eta egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Donostia, 2025eko urriaren 3a.

(Zerbitzu-eginkizunei buruzko 2025-05-26ko Ebazpenarekin bat etorriz, funtzioen behin-behineko esleipenean).

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Gipuzkoako jarduneko lurralde-ordezkaria, ANTTON ARRIETA INSAUSTI.